



Euskal Idazleen Elkartea

BULETINA

3 zenb.

Uztaila, 1984

YON ETXAIDE ITHARTE

Beren bizitzako ekintzarik nagusiena euskal lanetara eskainiz ibili direnen artean toki berezia bete du Yon Etxaide Itharte donostiar irazleak. Gerraondoko idazlerik oparotsuena, noski.

Oraintsu *Habe* aldizkariak (40. zenb.; 1984-IV-1.) argitaratu duen elkarrizketatik ohartuko gara haurtzarotik bere buruaz gutietsirik bizi izan den gizona dugula. Integrista famili baten eragina eta derrigorturiko ikasketak desbideratu zuten gaztea. Baina, hala ere, barnetikako konpentsazio naturalaren indarrak nagusitu zitzaizkion eta gizartetik zerbait apartaturik bizi izan bada ere, alderantziz, *gizartea* beste ikuspide batetik begiratu du berak, partaidetza irakurketaz eta irazketaz osatuz. Era berean, edo neurri handi batean, hiltzeaz zegoen hizkuntza eta bere etsipena buruabat eginaz. Bestela oso ulerkaitza da munduz hain gogaiturik zegoen batek horrenbeste lan burutzea hiltzeaz zegoen bere hizkuntza jatòrraren bidez.

Bestalde ikus ditzagun nor izan duen irazle zaharretan gogozko eta berrien artean kideko: Etxahun eta Mirande.

Maiz, krisi larriak ziren aberriminez eta hilzorian zen hizkuntzaz eta hizkuntzarentzat zerbitzea nahi zuenarentzat. Baina, horrek bedorrek zenbaiteraino ez ote zuen bizkortu irazlearen gogoaz?

Bere buruaz gutietsirik eta gizartean bakarti aurkitu zen gazteak irazlana bilatu zuen liberatzaile. Hala ere, horrek ez du ukatzen, maiz, berak dion bezala: «Euskaraz iraztea sufritea besterik ez bait da eta askotan erotzeaz egoten naiz larritasunez eta axanpaz itota». Bere egoeran ezta gutiagorako. Izan ere,

gizonaren senean bada barnetik iraunkortasunezko indar berezi bat, bizitzari loturik iraunarazteko indar naturala, Etxaideren baitan kristau fedearen bidez sostengatzen dena; naturalezak era askotako aurpegien bidez erakusten bai du izaera gordetzeko modu hori. Bestela, egun, ez zen gizarterik.

Sufrikariozko irazlana, hein batean lagungarri izan badu ere, ez bait da betirako euskarri, eta urteak iraganaz beheraka etorri da ezer berririk sortzea. Horregatik, azken urte hauetako bere lana zaharra berritzean izandu da. Bere lehenagoko lanak hobetuz birargitaratzean, eta bestetik hain maite duen eta hain identifikatua, Etxahun gipuzkeraz, gazteleraz eta oharrez *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* aldizkarian atalka emanez gure artean hobeto ezagut dezagun.

Yon Etxaide Donostian jaio zen 1920. urteko martxoaren 27an. Bere aita zenaren laguntzaz ikasi zuen euskaraz irazten. Baina, bere irazkera Azkuek euskara baturantz markatu zuen «Gipuzkera osatuak» bideratu zuen. Geroztik, euskara idatzia- ren batasuneruntza eman diren normetara idekirik joan da. Gipuzkoan beste inor baino lehen hasi zen «h» letraz irazten. Hala daudenez 1953. urtea geroztik argitaratu zituen liburuak. Hizlaxo landua eta oparotsua du, hizkuntza aberats baten jabe denez.

Literatur lanaren estilo eredutzat ordea, Txomin Agirre hartu zuen, hura baino gorginagoa bada ere. Eta hark bezala ikutu zituen nekazari gaiak *Joanak joan* Etxahunen bizitzaz osatu zuen eleberrian (1953. urtean argitaratu zuen eta birargitalpen berritua 1980an), itsaso giroa *Markes baten alava*-rekin (1958an *Egan* aldizkarian argitaratu zuen drama), eta Erdi Aroko eleberria *Gorrotoa lege* (1964an argitaratua). Tx. Agirrek *Garoa*, *Kresala* eta bukatu gabe utzi zuen *Ni ta ni* eleberrien gisa.

Erdarazko idazleen artean, agian, Pio Baroja izan du maitteenetako bat eta honen lanetatik euskal kutsudun *Las inquietudes de Shanti Andia*, eta euskarara itzuliz argitaratu zuen *Itxasoa laino dago* (1959) izenburuz. Honen birargitaratze hobetua aspaldi prest du, baina hiruzpalau urtean hor dago argitaratu ezinik, geldí.

Horiek dira Etxaideren literaturazko lan nagusienetakoak, baina ez guztiak. Eleberrien artean gogoangarriak ditugu: *Alostorrea* (1950), geroago hobetua eta izenez berritua 1981ean argitaratua *Usoa Alostorreko* eta *Eneko Agerroa* (1981). Ipuin liburuak ordea: *Purra! Purra!* (1953) eta Fernando Plaentxiatarra (1957). Biografiaz: *Amasei seme Euskalerriko* (1958). Antzerki dramak: *Amaiur* (1951. urtean *Euzko-gogoa*-an argitaratua) eta birargitalpen hobetua, liburu berezi batean, 1978-an; arestian aipaturiko *Markes baten alaba* (Egan, 1958); *Begia begi truk* (Egan, 1962) eta birargitalpen hobetua liburu berezi batean 1978. urtean.

Sorketazko lan horiez gainera itzulpenak egin ditu, arestian aipatu den Pio Barojaren eleberriaz gainera José de Arteche-ren *Bidez bide (Caminando)*, 1952-1954 urteetan Egan-en zatika emana; Yvan Lissiner-engandik *Egipto'ko gizalantze (Ainsi vivaient nos ancêtres)* Egan-en 1921ean; Isidoro de Fagoaga-ren *Domiku Garat (Domingo Garat)* 1979an argitaratua. Eta, azkenez, Arturo Campión-en *Pedro Mari*, Egan-en 1982an argitaratua.

Baina bere literaturgintzan lanik gehien eskaini diona Pierre Topet-Etxahun, bai pertsonaiaren bizitzaren aldetik eta baita ere poesiaren aldetik, edizio kritiko gisa oharrez, gipuzkerara eta euskara batura itzuliz eta era berean gazteleraz ere jarriaz. Langintza horren hasieran dago *Joanak joan* eleberria, gero *Etxahun-en bertsoak gipuzkeraz*, 1969an zuberotarretik gipuzkeratuaz, anitz oharrez prestatutako edizioa. Orain ordea, zenbait urtez lan eta lan dator, haien hobekuntzaz eta gure arteko zabal-kundez, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País elkar-tearen Buletinetan zatika bertsoz-bertsoko ikerketa sakonduz eta burutuz. Beraz, azken urte hauetan egiten duena ere ezta txantxetako lana. Aitortu behar da, hontan lehenago Jon Mirande zenaren aholkuz baliatzen zela eta orain Jean Haritschelharrenaz, zeren Etxahun zaharra ongi ulertuko bada Zuberoko euskaraz gainera Biarnoko mintzaira era jakin behar bait da.

Zama astuna hartu zuen Etxaidek bere lepora. Idazleok ez dugu inork esan beharrik gure hesparru hertsu hontan ez dagoela lan horiek inondik kobratzerik. Eusko Jaurlaritzak, nolabait saritu nahirik, 1.000.000,- peseta eman badio eta horrekin ere ordaintzen ez bada, hala ere, eskertzekoa dela aitortu behar dugu, eta guziok gure zorionik zintzoena agertzeko ordua dela esan dezakegu, aspalditik ongi merezia duen omenaldi baten bidez.

J.S.M.